



# Bilbatuazpikoa

etxebizitza

Aldaerak: Kondena  
Ahozkoa: Bilbétu / Kondiëna

“... la casería rústica titulada Bilbatua-azpicoa... situada en la Cofradía o barriada de Andicona de la Aneiglesia de Berriz, que comprende su horno y un retazo de horno [huerto] trescientos quince estados, equivalentes a once áreas noventa y ocho centiareas de cabida, y la que se compone de sus correspondientes pisos, cuadras, divisiones y habitaciones...”  
DJE 3/74 or. (1872)



43° 10' 48"

2° 35' 40"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Andikoa kofradiaren hegoaldean aurkitzen dira Bilbatua etxeak, *Etxosteko motearen* babespean. Bizkaiko su-erroldean agertzen dira lehenbizikoz Bilbatuazpikoa baserriaren gaineko aipamenak: Bilbatua de Yuso (1704) eta Uilbatua Aspicoa (1796). Izenaren bigarren osagaiak argi erakusten digu bertan *goikoa* edo *ganekoa* izen-osagaia duen beste baserriren bat dagoela, *Bilbatuaganekoa* (**Ikus Bilbatuaganekoa**), hain zuzen ere. XVIII. mendean geroztik, dokumentazioan *azpikoa* eta *beazkoa* aldaerak tartekatzen dira: Bilbatua Beazkoa (1762, BAHF, A465/32), Bilbatua Azpicoa (1825, PE/1825) eta Bilbatua Azpicua (1905, BUA, 40). 1859ko Nomenclatorrean Bilbatuas agertzen da, lehen aipatu bezala etxe guztiak Bilbatuas izenaren pean multzokatzen baititu, inongo bereizketarik egin gabe. Auzotarren artean ere, maiz Bilbétu izenarekin identifikatzen dituzte etxe horiek, eta kasu honetan aztertzen dugun hau, zehazki, *Kondiëna* moduan ezagutzen da.

Aldi desberdinetan burututako baserria da, parterik zaharrena XVI. mendekoa delarik. Dolare-baserria deritzen horietakoa zen jatorrian. Oraindik ere, dolarearen aztarnak gordetzen dituelako barruan, baita upategia ere sotoan, erripa aprobetxatuz egin zena. Horrez gain, garai horretakoak ditu bi leiho berezi: barnealdean bata, arkuduna, eta kanpoan bestea, molduratua. Edozelan ere, gaur egun ikusten duguna mende batzuk beranduagokoa da, sarrerako dinteldun ate txikiak ondo adierazi moduan. Fatxada oso sinplea da, denboran zehar hainbat aldaketa izan dituen arren, balkoia kasu. Erdian, sarrerako atea dauka, horren gainean balkoia harrizko mentsuletan eutsita, eta, azkenik, ganbaran, alderik alde doan egurrezko balkoia dauka. Erabilitako materiala harlangaitza da, eta harlandua, aldiz, kantaletan eta baoetan. Teilatua isurki bikoia da.

toponimia

Alfontso Irigoien ikerlari ezagunaren ustez izen honetan dugun hitza Bizkaiko hiriburarekin lotu behar da. Badirudi Zallan ere errepikatzen den izen honetan aditza dugula baina esangura, “trama”, iluna da. Bizkaian, behin baino gehiagotan esan dugun legez, ohikoa da etxe izenetan auzoa izena, jatorriz etxe baten izena zena, beste ezaugarri bereizgarri batez lagunduta agertzea. Kasu honetan Bilbatu auzuneko etxe hau behekoa da.